

2.9. Kostuen egiturak.

BotiClick proiektuaren kostuen egitura elementu desberdinek osatzen dute, eta guztiak dira garrantzitsuak produktuaren funtzionamendu egokia eta epe luzerako jasagarritasuna bermatzeko.

Lehenik, armairu adimenduna fabrikatzeko beharrezkoak diren material teknologikoak dira gasturik handienetakoak: pisu-sentsore zehatzak, datuak biltzeko kontrol-plakak, LED argi-adierazleak eta armairuaren egitura eraikitzeko materialak (egurra, metala edo plastiko sendotuak). Horri gehitzen zaio hardwarearen muntaketa eta fabrikazioaren kostua, produkzio-prozesuan inbertitu behar den lan-orduekin.

Bigarrenik, gastu esanguratsua sortzen du softwarearen garapenak: datuak jasotzeko plataforma, erabiltzaileen interfazea, alerten sistema eta etorkizunean aplikazio digitalarekin egingo den integrazioa. Softwarearen mantentze-lanak eta eguneraketek ere kostu jarraitua sortzen dute.

Bestalde, beharrezkoa da instalazio eta mantentze zerbitzuak kontuan hartzea: ikastetxeetara armairuak garraiatzea, muntatzea, lehen konfigurazioa, eta urtean behin gutxienez egiten diren berrikuspen teknikoak. Horri lotuta, logistika eta garraio gastuak ere sartzen dira.

Era berean, proiektua ezagutarazteko eta bezero berriak erakartzeko, beharrezkoa da marketin eta komunikazio gastu bat: aurkezpenak, sustapen-kanpainak, informazio-materialak eta webgunearen mantentzea.

Azkenik, ezinbestekoa da bezeroari laguntza eta formakuntza eskaintzeko lan-kostua kontuan hartzea: prestakuntza saioak, arreta pertsonalizatua eta erabiltzaileei laguntza emateko baliabideak.

Kostu guzti hauek ikusita, proiektuak inbertsio teknologiko sendoa behar du hasieran, baina bere izaera modularra eta eskalagarritasuna direla eta, epe luzera kostuak optimizatu daitezke eta errentagarritasun jasagarria lor daiteke.

Alokairua momentuz ez da gastu bat izango guretzat, etxeko garajea hasiko baitgara proiektua sortzen.

KOSTUA	MOTA	ZENBATEKOA	OHARRA
URA	Eskala ekonomikoa	0,13€/L x Q	Hasieran erosiko dugu beharrezkoa duguna, ura iraungaitza delako.
SOLDATAK	Finkoa	1200€/hilabete	
ARGIA	Aldakorra	0,1500€/kMh	Alokairuaren parte ez da, gure etxeko garajea egingo dugulako lan, baina argia enpresak ordainduko du.
PISU SENTSOAREAK	Aldakorra	1,75€/bakoitza	Saltzen ditugun armairuen kopuruaren arabera (eskariaren arabera)
KONTROL PLAKAK	Aldakorra	20€/bakoitza	Ura zenbat betetzen den informazioa gordetzen du.
LED ARGIAK	Aldakorra	0,56€/bonbila txikia	Argia piztuko da ur botila betetzen denean

ARMAIRUAREN EGITURA	Aldakorra	40€/bakoitza sortzea	
SOFTWARE	Finkoa	480€/urte	
INTERNETA	Finkoa	20€/hilero	Webgunea mantentzeko eta jasotzen ditugun korreoak, etab erantzuteko.

ITURRIAK →

STARTInnova. (s. f.). <https://www.startinnova.com/>

TuLibrodeFP, SLU. (s. f.). IPE II 2025.

<https://libreria.tulibrodefp.es/inicio/287-ipe-ii-2025.html>